BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

2899

EBAZPENA, 2014ko ekainaren 30ekoa, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena, 2014ko ekitaldiari dagokionez, merkataritzako banaketaren dinamizatzaileak prestatzeko bekak emateko deialdia argitara emateko dena.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2011ko apirilaren 13ko Aginduaz arautzen da Merkataritza-banaketaren dinamizatzaileak prestatzeko beken programa (2011ko ekainaren 28ko, EHAA, 122. zk). Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko uztailaren 18ko Aginduaren bitartez, aldatu egin da: Merkataritza-banaketaren dinamizatzaileak prestatzeko beken programa arautzeko Agindua (2014ko ekainaren 27ko EHAA).

Aipatutako aginduaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, egoki da, hor iragarritako diru-laguntzak emateko, 2014ko ekitaldirako deialdia egitea, eta, horretarako, eman beharreko arau guztiak ematea.

Azaldutako guztiagatik, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Helburua.

Ebazpen honen helburua da 2014ko ekitaldirako honako deialdi hau egitea: Merkataritza-banaketaren dinamizatzaileak prestatzeko beken programa arautzeko Aginduan aurreikusitako laguntzetarakoa.

Deialdiko bekak finantzatzeko 465.000 euro erabiliko dira, beka bakoitzarentzat 15.000 euroko urtekoetan banaturik, kopuru horretan obligazio guztiak sartzen direlarik, hau da, bekaren onuradunak aurre egin behar dien guztiak, barne delarik Gizarte Segurantzarentzako kuota langileari dagokiona. Horretaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak beken onuradunen aldeko alta emango du Gizarte Segurantzan, eta kuota patronala ere bere gain hartuko du.

Gehienez ere, 2014ko ekitaldian, hogeita hamaika (31) beka emango dira, eta hamabi hilabeteko iraupena izango dute.

Bigarrena.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Merkataritza-banaketaren dinamizatzaileak prestatzeko beken programa arautzeko Aginduan aurreikusitako bekak jaso ahal izateko, aipatu aginduko 3. artikuluan ezarritako betekizunak konplitu beharko dira.

2.– Eskabideak, errekerimenduak, jakinarazpenak eta agindu honi lotutako gainerako kudeaketak egin daitezke bai bitarteko elektronikoen bitartez, bai bertatik bertara, betiere Administrazio Elektronikoaren otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuarekin eta E-Administraziorako Plataforma Teknologikoa (Platea) onartzen duen Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenarekin bat etorriaz.

Eskabidera sarbidea izateko eta berori betetzeko, https://www.euskadi.net/comercio egoitza egoitza elektronikoa bakarrik erabil daiteke, betiere laguntzetarako deialdia argitara eman ostean. Egoitza elektroniko horretan eskura izango da eskabide eredua.

Espedientera sartzeko eta gainerako izapideak egiteko, helbide honetarako joko da: http://www.euskadi.net/misgestiones

Eskabidean honako hauek jaso beharko dira: laguntza eskatu duen pertsonak baimendutako sinadura, eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazio guztia eta Administrazioak eska dezakeen dokumentazioa, betiere Administrazio Elektronikoaren otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan xedatutako zehaaztapenekin bat etorriaz.

Aurreko aukera gorabehera, sinadura digitala erabili nahi ez bada, eskabideak honako webgunean ttp://www.euskadi.net/comercio bete eta informatikoki gordeak izan ondoren, inprimatu egin beharko dira eta erakunde eskatzailea ordezkatzeko legezko ahalmena duen pertsonak sinatuta bidali Turismo Zuzendaritzara, eta honako leku hauetan aurkeztuko dira:Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko lurralde-ordezkaritzetan, Zuzenean Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren bulegoetan edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan zehaztutako lekuetako batean, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen.

3.– Datu pertsonalez gain –helbidea, e-maila eta harremanetarako telefonoa–, honako dokumentazio hau ere jaso beharko dute eskabideek: Merkataritza-banaketaren dinamizatzaileak prestatzeko beken programa arautzeko Aginduko 7.4 artikuluan eskatutakoa.

4.– Deialdiko beketarako eskabideak aurkezteko epea hauxe izango da: ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da; amaitu, berriz, 2014ko uztailaren 30ean.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Deialdi-ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko ekainaren 30a.

Merkataritza eta Turismoko sailburuordea,
ITZIAR EPALZA URQUIAGA.